Hizkuntza eskakizunaren derrigortasunaren araubide orokorra bete beharrik ez izatea behar bezala egiaztatu beharko da: konkretuki, araubide orokorreko irakaskuntzako ikastetxe publikoetako irakasleentzat martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuan finkatuta dagoen moduan.

AZKEN XEDAPENA

*Lehenengoa.–* Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra Dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 2001eko abenduaren 26an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
M.ª ÁNGELES IZTUETA AZKUE.

Kultura sailburua,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

La acreditación de las circunstancias que dan lugar a la exención en el cumplimiento general de preceptividad del perfil lingüístico se verificará en la forma establecida con carácter general para los docentes de los centros públicos de enseñanza de régimen general en el Decreto 47/1993 de 9 de marzo.

DISPOSICIÓN FINAL

*Primera.–* el presente Decreto entrará en vigor al día siguiente al de su publicación el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 26 de diciembre de 2001.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
M.ª ÁNGELES IZTUETA AZKUE.

La Consejera de Cultura,
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

## INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

### Zk-59

370/2001 DEKRETUA, abenduaren 26koa, Turismoko Aholku Batzordea sortu zuen dekretua aldatzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoak turismo arloan erabateko eskumena du, eta hala xedatzen du Euskal Herrirako Autonomia Estatutuaren 10.36 artikuluak.

Jarduera turistikoek ekonomikoki hartu duten garrantzia eta ekonomia modernizatzeko bihar-etzi izan dezaketen garrantzia ikusita, eta oinarrizko sektore bihur daitekeela ere kontuan izanda, bere garaian bidezkoa ikusi zen Turismoko Aholku Batzordea bezalako organo bat sortzea. Batzorde horren helburua da, turismo arloan ari diren erakunde publiko zein pribatuen partaidetzarekin, turismo arloko administrazioak har ditzakeen neurrien gainean aholkua ematea turismo gaietan eskumena duen sailari, bai eta sektore turistikoa sustatu eta hobetzeko proposamenak, neurriak eta ekimenak adieraztea ere.

Abenduaren 15eko 392/1987 Dekretuak Euskal Turismoaren Kontseilua sortu zuen. Gerora, martxoaren 31ko 80/1982 Dekretuak dekretu hori indargabetu zuen eta Euskal Turismoaren Kontseiluaren ordez, Euskal Autonomia Erkidegoko Turismoko Aholku Batzor-

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

### N°-59

DECRETO 370/2001, de 26 de diciembre, de modificación del Decreto por el que se crea el Consejo Consultivo de Turismo del País Vasco.

La Comunidad Autónoma del País Vasco ostenta, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 10.36 del Estatuto de Autonomía, la competencia exclusiva en materia de Turismo.

La importancia económica adquirida por la actividad turística y su potencial de futuro como medio de modernización de la economía y tendente a constituirse como un sector básico, aconsejaron en su día la creación de un órgano como el Consejo Consultivo de Turismo del País Vasco, que con la participación de entidades tanto públicas como privadas que inciden en el sector turístico, actuara asesorando al Departamento competente en materia de turismo en aquellas medidas que puedan adoptarse desde la Administración turística, y formulando iniciativas, medidas y propuestas tendentes a la promoción y mejora del sector turístico.

Por Decreto 392/1987, de 15 de diciembre, se creó el Consejo Vasco de Turismo / Euskal Turismoaren Kontseilu. Posteriormente, por Decreto 80/1992, de 31 de marzo, se procedió a derogar el citado Decreto y a la creación- en sustitución del Consejo Vasco de Turismo-

dea sortu zuen eta batzordearen osaketa eta eginkizunak ezarri zituen.

Turismoa Antolatzeko martxoaren 6ko 6/1994 Legeak ezartzen dituen administrazio-jardueraren irizpide eta printzipioen artean gainontzeko administrazio publikoekiko koordinazioa aipatzen da, koordinazioaren bitartez jarduera publikoa eraginkorragoa baita. Horrez gain, Legeak aurreikusten du legean bertan ezarritako helburu eta xede guztiak lortzen direla eta sektoreko gainontzeko agenteekin zein administrazioekin lankidetzan lortzen direla ziurtatzeko behar diren neurri guztiak hartuko direla.

Euskal Autonomia Erkidegoko Turismoko Aholku Batzordea martxoaren 6ko 6/1994 Legean ezarritako printzipioak eta jarduera-irizpide guztiak betetzeko tresna baliagarria da gaur egun. Baina, jarduera turistikoak zenbaterainoko indar ekonomikoa hartu duen ikusita, ekonomia modernizatzeko bihar-etzi izan dezaketen garrantzia ikusita, eta sektorean agente eta sektore berriak sartu direla kontuan izanda, ikusi da egokia dela Batzordeko kideak aldatzea, hartara, turismoarekin zerikusia duten gizarteko agente eta sektore guztien ordezkaritza hobea lortzeko bertan.

Era berean, Batzordearen osaketa aldatzeaz gain, beste hainbat gauza ere moldatu nahi dira; izan ere, izaera iraunkorreko lan batzordeak sortzeko aukeraz gain, aldi baterako lan batzordeak sortzeko aukera ere egotea nahi da. Batzorde horiek iraungo dute euren zereginak irauten duen bitartean.

Azkenik, Batzordearen osoko batzarraren bigarren deialdia ere arautzen da, Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 26. artikuluan xedatzen denaren arabera.

Ondorioz, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2001eko abenduaren 26an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*Lehenengo artikulua.–* Euskal Autonomia Erkidegoko Turismoko Aholku Batzordeari buruzko martxoaren 31ko 80/1992 dekretuaren 3. artikuluko 1. paragrafoa aldatu egiten da eta honela idatzita geratuko da:

«Euskal Autonomia Erkidegoko Turismoko Aholku Batzordea honako hauek osatuko dute:

a) Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua. Batzordeko lehendakaria izango da.

b) Eusko Jaurlaritzako Turismo sailburuordea. Batzordeko lehendakariordea izango da, eta Batzordeko lehendakari moduan arituko da lehendakariaren kargua hutsik badago, lehendakaria falta bada, gaixorik badago edo bestelako legezko arrazoirik badago.

del Consejo Consultivo de Turismo del País Vasco, estableciendo su composición y funciones.

La Ley 6/1994, de 16 de marzo de Ordenación del Turismo, establece entre los principios y criterios de actuación administrativa el de coordinación y cooperación con el resto de las Administraciones públicas para el ejercicio más eficaz de la acción pública. Asimismo, prevé la adopción de cuantas medidas sean necesarias para asegurar los fines y objetivos de la ley en colaboración con los agentes del sector, así como con las demás administraciones públicas.

En estos momentos, el Consejo Consultivo de Turismo del País Vasco viene siendo un instrumento válido para el cumplimiento de los principios y la realización de los criterios de actuación establecidos en la Ley 6/1994, de 16 de marzo, pero, habida cuenta de la importancia económica adquirida por la actividad turística, de su potencial de futuro como medio de modernización de la economía, y de la incorporación a la misma de nuevos agentes y sectores, se considera oportuno modificar la composición del citado Consejo, con el fin de conseguir una mejor representación de todos los agentes y sectores de la sociedad vinculados al turismo.

Asimismo, se aprovecha la reforma para realizar algunas adaptaciones tendentes a establecer la posibilidad de crear comisiones de trabajo no sólo con carácter permanente sino también con una duración equivalente al de la realización del objeto de la misma.

Finalmente, se regula una segunda convocatoria del Pleno del Consejo, tal y como faculta el artículo 26 de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 26 de diciembre de 2001,

DISPONGO:

*Artículo primero.–* Se da nueva redacción al apartados 1 del artículo 3 del Decreto 80/1992, de 31 de marzo, sobre el Consejo Consultivo de Turismo del País Vasco que quedará redactado en los siguientes términos:

«1.– El Consejo Consultivo de Turismo del País Vasco está compuesto por los siguientes miembros:

a) El Consejero de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, que actuará como Presidente.

b) El Viceconsejero de Turismo del Gobierno Vasco, que actuará como Vicepresidente y que presidirá el Consejo en caso de vacancia, ausencia, enfermedad u otra causa legal.

c) Eusko Jaurlaritzako Turismoa Antolatzeko zuzendaria.

d) Eusko Jaurlaritzako Turismoa Sustatzeko zuzendaria.

e) Lurralde Historikoetako Foru Aldundi bakoitzeko foru diputatu bana. Horien izendapena Foru Aldundi bakoitzeko gobernu organoek edo horiek eskuordetutako zuzendariek egingo dute.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historikoetako hiriburuetako alkateak edo horiek eskuordetutako zinegotziak.

g) Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) proposatutako bokal bat.

h) Euskal Autonomia Erkidegoko Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbarek proposatutako bokal bat.

i) Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkaritzarik handiena duten sindikatu bakoitzak proposatutako bokal bana.

j) Bilboko Nazioarteko Azokak proposatutako bokal bat.

k) Euskal Autonomia Erkidegoko bidaia agentzia elkarteek proposatutako bokal bat.

l) Euskal Autonomia Erkidegoko Ostalaritza Federazioak proposatutako bokal bat.

m) Euskal Autonomia Erkidegoko Turismo eta Ostalaritza eskolek proposatutako bokal bat.

n) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumitzaileen Elkarteek proposatutako bokal bat.

o) Nekazalturismoko Elkarteak proposatutako bokal bat.

p) Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Hotelen Elkarteak proposatutako bokal bat.

q) Kanpinen Federazioak proposatutako bokal bat.

r) Legalki eratuta dauden Euskal Autonomia Erkidegoko Conventions Bureauek proposatutako bokal bat.

*Bigarren artikulua.–* Euskal Autonomia Erkidegoko Turismoko Aholku Batzordeari buruzko martxoaren 31ko 80/1992 dekretuaren 6. artikuluko 1. paragrafoa aldatu egiten da eta honela idatzita geratuko da:

«1.– Lehendakariak egingo du batzordea biltzeko deialdia. Batzordearen osoko batzarra gutxienez sei hilean behin bilduko da, lehendakariak egoki ikusten duen bakoitzean edo gutxienez batzordeko kideen bi herenek eskatzen duten bakoitzean. Bilerarako deialdiarekin batera, gai-zerrenda egongo da.

Organoa behar bezala eratuta egoteko, hau da, bilerak egin, eztabaidak egin eta erabakiak hartu ahal izateko, ezinbestekoa izango da lehendakaria eta idazkaria edo horien ordezkoak eta gutxienez batzordeko kideen erdia ere bertan egotea.

c) El Director de Ordenación Turística del Gobierno Vasco.

d) El Director de Promoción Turística del Gobierno Vasco

e) Un Diputado Foral de cada una de las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos, designado por sus respectivos órganos de gobierno, o Director en quien delegue.

f) Los alcaldes de las capitales de los tres Territorios Históricos de la Comunidad Autónoma o concejales en quienes deleguen.

g) Un vocal propuesto por la Asociación de Municipios Vascos (EUDEL).

h) Un vocal propuesto por las Cámaras de Comercio, Industria y Navegación del País Vasco.

i) Un vocal propuesto por cada uno de los sindicatos más representativos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

j) Un vocal propuesto por la Feria Internacional de Muestras de Bilbao.

k) Un vocal propuesto por las Asociaciones de Agencias de Viaje del País Vasco.

l) Un vocal propuesto por la Federación de Hostelería del País Vasco.

m) Un vocal propuesto por los centros de enseñanza de Turismo y Hostelería del País Vasco.

n) Un vocal propuesto por las Asociaciones de Consumidores del País Vasco.

o ) Un Vocal propuesto por la Asociación Nekazalturismoa.

p) Un Vocal propuesto por la Asociación de Hoteles Rurales del País Vasco.

q) Un Vocal propuesto por la Federación de campings.

r) Un Vocal propuesto por los denominados Conventions Bureau del País Vasco legalmente constituidos.»

*Artículo segundo.–* Se da nueva redacción al apartado 1 del artículo 6 del Decreto 80/1992, de 31 de marzo, sobre el Consejo Consultivo de Turismo del País Vasco que quedarán redactado en los siguientes términos:

«1.– El Pleno del Consejo se reunirá previa convocatoria del Presidente al menos una vez cada semestre y siempre que aquél lo estime conveniente o lo soliciten al menos dos tercios de sus miembros. A la convocatoria de las reuniones se acompañará el orden del día.

Para la válida constitución del órgano, a efectos de la celebración de sesiones, deliberaciones y toma de acuerdos, se requerirá la presencia del Presidente y Secretario o en su caso de quienes les suplan y la de la mitad al menos, de sus miembros.

Quorumik egon ezean, Batzordeko osoko batzarra berriro bilduko da bigarren deialdian, lehengo deialdirako ezarrita zegoen ordutik ordu erdira, baldin eta bertan badago hitza eta botoa duten batzordekideen herena (kide horien artea lehendakaria eta idazkaria edo horien ordezkoak egon beharko dira nahitaez).»

*Hirugarren artikulua.–* Euskal Autonomia Erkidegoko Turismoko Aholku Batzordeari buruzko martxoaren 31ko 80/1992 dekretuaren 7. artikulua aldatu egiten da eta honela idatzita geratuko da:

«Lan batzordeak behin betiko izaerarekin edo aldi baterako izaerarekin eratu ahal izango dira. Aldi bateko izaera izango dute turismoaren arlo jakin batzuk aztertzeko sortzen diren batzordeak, eta lan hori bukatu arte iraungo dute.»

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean.

Vitoria-Gasteizen, 2001eko abenduaren 26an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

Si no existiera quórum, el Pleno del Consejo, se constituirá, en segunda convocatoria media hora después de la señalada para la primera, siempre que concurran al menos la tercera parte de sus miembros con voz y voto entre los que deberá contarse el Presidente y el Secretario o en su caso la de quienes les suplan.»

*Artículo tercero.–* Se da nueva redacción al artículo 7 del Decreto 80/1992, de 31 de marzo, sobre el Consejo Consultivo de Turismo del País Vasco que quedará redactado en los siguientes términos:

«Las Comisiones de trabajo se constituirán bien con carácter permanente bien hasta la conclusión de los trabajos objeto de su constitución para el estudio de aspectos sectoriales del turismo.»

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 26 de diciembre de 2001.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Industria, Comercio y Turismo,
JOSU JON IMAZ SAN MIGUEL.

## KONSTITUZIO AUZITEGIA

### Zk-60

5973-2001 ESKUMEN-GATAZKA POSITIBOA, Estatuko Gobernuaren ordez Estatuko abokatuak aurkeztua, Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 26ko 117/2001 Dekretuaren inguruan. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko hizkuntza-normalkuntzarako neurriak finkatu zituen.

Konstituzio Auzitegiak, abenduaren 11ko probidentzia batez, izapideak egiteko onartu du 5973-2001 Eskumen-Gatazka Positiboa, Estatuko Gobernuaren ordez Estatuko abokatuak aurkeztutakoa, ekainaren 26ko 117/2001 Dekretuaren II., III., IV. eta V. kapituluen inguruan eta gehigarrizko xedapenetatik lehenengoaren, bigarrenaren eta hirugarrenaren inguruan —Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko hizkuntza-normalkuntzarako neurriak finkatu zituen—. Eta jasoarazten da Gobernuak Konstituzioaren 161.2 artikulura jo duela eta horrek eten egiten duela inpugnatutako manuen indarraldia

## TRIBUNAL CONSTITUCIONAL

### N°-60

CONFLICTO POSITIVO DE COMPETENCIA número 5973-2001, promovido por el Abogado del Estado en representación del Gobierno de la Nación, en relación con el Decreto del Gobierno Vasco 117/2001, de 26 de junio, de medidas para la normalización lingüística de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Tribunal Constitucional, por providencia de 11 de diciembre actual, ha admitido a trámite el conflicto positivo de competencia número 5973-2001 promovido por el Abogado del Estado en representación del Gobierno de la Nación, en relación con los Capítulos II, III, IV y V, y Disposiciones adicionales primera, segunda y tercera del Decreto del Gobierno Vasco 117/2001, de 26 de junio, de medidas para la normalización lingüística de la Administración de Justicia en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Y se hace constar que por el Gobierno se ha invocado el art. 161.2 de la Constitución, lo que produce la suspensión de la